

# MOZORROA

Orain arte ezagutu dugun Halloween ereduak kontsumismoa du ardatz, eta gure asmoa horri buelta ematea da. Horretarako, mozorroak etxeko erropa eta trapu zaharrekin egingo ditugu. Hemen adibide batzuk aurpegi eta gorputz-enborrerako:

## *Aurpegia:*



## *Gorputz-enborra:*



Horrelakorik ezean, posible da zabor poltsekin ere zerbait txukuna egitea. Poltsari hiru zulo egin, bi besoak eta burua sartzeko eta soka bat jarri gerrian gerriko modura. Behe aldean, edozein prakarekin ondo legoke.

# Apaingarriak

Mozorroaz gain, apaingarriak ere eraman daitezke. Lastozko kapela nahiko ohikoa izaten da, baita makilak eta tela zatiak ere, kalabazak, zarata egiteko arrana edo zintzarriak...



*Lastozko kapela*



*Zintzarriak*



*Kriseilua*



*Kalabazak*